

# hó \

# gutunzuria

Nazioarteko Letren Jaialdia

Alhóndiga Bilbao

2011ko Apirilaren 7tik 10era

EGIN  
EZAZU NAHI  
DUZUNA

EZER EGITEN  
EZ DUZUN  
BITARTEAN

'Hamarkada bati buruz hausnarketak'

|                   |                      |
|-------------------|----------------------|
| ANTONIO ALTARRIBA | LEV DANILKIN         |
| JAVIER CERCAS     | MARIA GÁLINA         |
| KARMELE JAIO      | VLADÍMIR MAKANIN     |
| CATHERINE MILLET  | VLADISLAV OTROSHENKO |
| SOLEDAD PUÉRTOLAS | ROMÁN SENCHIN        |
| SALMAN RUSHDIE    | ALEXÉI VARLÁMOV      |
| SLAVOJ ŽIŽEK      | SVETLANA VASILENKO   |
|                   | BORIS YEVSÉYEV       |
|                   | GALINA YEVTUSHENKO   |

[www.alhondigabilbao.com](http://www.alhondigabilbao.com)

Any information regarding the Festival can be found in english at the web site

bbk

EL CORREO

# hó \ gutunzuria

Hainbatekin solasean...

Alhóndiga Bilbao

»GUTUN ZURIA Jaialdiak nazioarteko literatura garaikidean urteroko erreferentziako hitzordu bihurtu nahi du Bilbao. Idazleen eta euren irakurleen arteko topagunea ez ezik, idazketatik eta pentsamendutik abiatuta, gizarte garaikidearen kezken inguruko eztabaida-gunea eta hausnarketa-gunea ere bada.

GUTUN ZURIA literaturaren pertsonaia handientzako hitzordua da, bai eta egile berriak aurkitzeko eremua ere; hiritar ikusberen komunitate eleaniztuna; ideiak eta aldarrikapenak komunikatzeko sare parte-hartzailea; neurona anitza, AlhóndigaBilbaotik luzapenak proiektatu eta, zaletu eta literaturako profesionalekin konektatuz, sinergiak sortzen dituen: idazleak, irakurleak, editoreak, agenteak, sustatzaileak, itzultzaileak, kritikariak, liburuzainak, blogariak.../

## »HAINBATEKIN SOLASEAN ...IDAZLEEKIN ...PUBLIKOAREKIN

Atal hori Jaialdiaren ardatz nagusia da.

Solasa interesatzen zaigu: bi adimenen arteko talkatik sortzen den energia ezagutu: «elkarrizketaren bidez, adimena ustekabeen harrapatu, probokatu, konprometitu, argitu, sustatu eta astindu».

Zeri buruz arituko gara 2011ko GUTUN ZURIAN? Jaialdiaren aurtengo izenburua hauxe da:

**'EGIN GURA DUZUNA, EZER EGITEN EZ DUZUN BITARTEAN. HAMARKADA BATI BURUZKO HAUSNARKETAK'.**

Nolabait, mende-hasiera honetan nabarmenak izan daitezkeen gaiak zedarritu nahi ditugu: aurreko hamarkada aztertu eta, azterketa horren bidez, datorrena nolakoa izango den antzematen saiatu. Horregatik, solaskideen bidez, funtsezkoa eta konplexua den gaia xehatuko dugu.

Zen da norbanakoaren askatasun-eremua gizarte garaikidean?

Dikotomiak ere landuko ditugu; esaterako, nola eman daitezkeen gizarte garaikidean ideologia nagusirik ez dagoelako ustea, gizarte honetan ideologiak dena sustitzen duelarik; zentsura eta autozentsura bezalako gaiak aztertuko ditugu; edota ikusiko dugu mendebaleko gizarte garaikideek gozatzeko eta zoriontsu izateko betebeharrak etikoaren obsesioa barneratu dutela eta, plazerak arautzeko biopolitikaren presioaren ondorioz, gatzgabekorantz eramaten gaituztela, profilaxirantz, 'light-erantz', harreman-gabeziaren eremu diren 'resort-erantz' eta 'spa-rantz'./

GURE  
HELBURUA?  
IRAKURRI ETA  
PENTSATZEAREN  
PLAZERA  
TRANSMITITzea



SLAVOJ ŽIŽEK

Liublianan jaio zen, Eslovenian. Senior Researcher da Birkbeck Collegen, University of Londonen. Bere buruaz filosofo hegeliarra, psikoanalista lacaniarra, kristau ateoa eta ekinizale politiko komunista dela dio, eta lau ezaugarri horiek kausa berari erantzuten diotela uste du. 'Filosofiako Elvis Presley' deitu diote, eta haren komunikazio-indar itzelagatik ezaguna da. Argitalpen nagusien artean daude: filosofian, 'The Parallax View' [Paralaje ikuspegia], Fondo de Cultura Económica (2006); psikoanalisian, 'How read Lacan' [Nola irakurri Lacan], 'Cómo leer a Lacan', Paidós (2008); teologian, 'The Monstrosity of Christ: Paradox or Dialectic?', Creston Davis (2009); eta politikan: 'Violence' [Indarkeria], Gaztelaniaz argitaratuta ere badago; 'Sobre la Violencia', Paidós (2009). Gaztelaniara itzultutako azken lanen artean daude: 'El prójimo. Tres indagaciones sobre teología política', Amorrortu editores (2010) [The Neighbor: Three Inquiries in Political Theology]; eta 'Lenin reactivado. Hacia una política de la verdad', Akal (2010) [Repeating Lenin]./



CATHERINE MILLET

'Art Press' aldizkariko erredakzio-zuzendaria da. Arteari buruzko hainbat lan monografiko egin ditu, horien artean nabarmenak: 'Textes Sur L'art conceptuel' [Arte kontzeptualari buruzko testuak]; 'Yves Klein'; 'L'Art contemporain en France' [Arte garaikidea Frantziari]; baita beste lan azpimarragarri batzuk ere: 'Conversations avec Denise René' [Denise Renekin hizketan]; 'Le Critique d'art s'expose' [Arte-kritikaria agerian]; 'L'Art contemporain' [Arte garaikidea]; eta 'Dali et moi' [Dali eta biok]. 2001ean 'La vie sexuelle de Catherine M.' [Catherine M.ren bizitza sexuala] argitaratu zuen eta 2003an, 'Riquet à la houppe, Millet à la loupe' [Riquete hupetearena, Millet luparena]. 2008an 'Jour de Souffrance' [Sufrikario eguna] argitaratu zuen. Hainbat erakusketen koordinatzailea izan da, Sao Pauloko Biurtekoaren atal frantziararen komisarioa 1989an eta Venezuelako Urtebikoaren Frantziako pabiloiaren komisarioa./



JAVIER CERCAS

Ibaherandon jaioa, Cáceres, 1962an. Ilinoiseko unibertsitatean bi urtez irakasle gonbidatua izandakoa, eta 1989az geroztik Gironako unibertsitateko Espainiar Literaturako irakaslea da. 'El País' egunkariako edizio katalaneko ohiko kolaboratzailea da. Bere obraren artean nabarmenak dira 'El móvil', 'El inquilino', 'El vientre de la ballena', 'Relatos reales', David Truebak zinerara eramandako 'Soldados de Salamina' eta 'Anatomía de un instante'. Hainbat sari jasotakoa da, besteak beste, Qué Leer Saria, el Crisol, Erresuma Batuko The Independent Foreign Fiction Prize, Italiako Grinzane Cavour, Txileko Kritika Saria, Premi Ciutat de Barcelona, Extremadura saria eta, 2010ean, Terenci Moix Nazioarteko Literatur, Zinematografia eta Arte Eszenikoen Saria, Saiakerako Urteko Idazlea eta Nacional de Narrativa 'Anatomía de un instante' obrarengatik./



ANTONIO ALTARRIBA

Frantziar Literaturako katedratikoa Euskal Herriko unibertsitatean. Idazketaren irudi-alderdiak eta irudiaren aukera narratiboak interesatzen zaizkio. Baita literatura erotikoa ere. Gai horri buruz hainbat liburu idatzi ditu, besteak beste, 'La España del tebeo' (2001), 'Tintin y el loto rosa' (2007) eta 'La paradoja del libertino' (2008). Gidailaria da, eta istorio bitxiaren albumen egilea: 'Amores locos' (2005), 'El brillo del gato negro' (2008) edo 'El arte de volar' (2009); azken honengatik Komikiaren Sari Nazionala jaso zuen 2010ean. Argazki bildumak ere jasoak ditu 'El elefante rubio' (2007) edo 'Vida salvaje' (2008) moduko obratan. Fikioko idazle gisa 'El filo de la luna' (1993), 'Cuerpos entretejidos' (1996), 'La memoria de la nieve' (2002) edo 'Maravilla en el país de las Alicia's' (2010) argitaratu ditu./



SOLEDAD PUÉRTOLAS

Zaragozan jaio zen 1947an. Kazetaritza eta Zientzia Politikoen lizentziatua. Ezkondu eta gero, Trondheim (Norvegia) pasatu zuen denboraldi bat, eta ondoren urte batzuk Santa Barbaran (Kalifornia). Madrilera itzuli zenean, bere burua ezagutzera eman zuen idazle gisa 1979an, 'Sésamo saria irabazi zueñean' 'El bandido doblemente armado' lanarekin. 1989an, izen handiko Planeta saria lortu zuen 'Queda la noche' obrarekin. 1993an, Anagrama Saiakera Saria eskuratu zuen 'La vida oculta'-rekin; 2000an, NH kontakizunen libururik onenari saria 'Adiós a las novias' lanarekin; eta urte bete geroago, Glauca 2001, bere ibilbide intelektual eta pertsonalaren aitortza gisa. 2003an, Letras Aragonesas saria jaso zuen. 2006az geroztik, Cervantes institutuko patronatuko partaidea da eta Real Academia Españolaren kide; 'g' besaukia okupatzen du 2010etik./



KARMELE JAI

Informazio zientzietan lizentziatua, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko komunikazio arduraduna da. Lan hori egunkari batzuetako zutabe lanarekin partekatzen du. 2004an argitaratu zuen bere lehenengo liburua bakarka, 'Hamabost zauri' ipuinen bilduma, hain zuzen. 2006an, 'Amaren eskuak' eleberria argitaratu zuen, eta, besteak beste, ondoko sariak jaso zituen: Igartz, Zilarrezko Euskadi Saria eta Beterriko Liburu, azken hau, irakurleek euskarazko urteko libururik onenari ematen diotena. 'Amaren eskuak' gaztelaniara eta alemanera itzuli dute eta idazlea bera egokitzen ari da zinemarako bertsioa. 2007an, 'Zu bezain ahul' kontakizun liburua argitaratu zuen eta, 2009an, 'Musika airean' eleberria. 2010ean, bere kontakizunen hautaketa bat argitaratu zuen gaztelaniaz. 'Heridas crónicas' izenburupean./

HARRITU,  
PROBOKATU,  
KONPROMETITU,  
ARGIA JARRI,  
ZIRIKATU

ETA  
ASTINDU  
BURUA  
ELKARRIZKETAREN  
BIDEZ

## MODERATZAILEAK



PAUL HOLDENGRÄBER

2004an New York Public Libraryra [NYPL] iritsi zenetik, instituzio horren programazioa irauli egin du eta 'Lehoiek orro egin dezaten nahi dut' lelopean ohiko hitzaldiak baztertu eta programa aberatsa aurkeztu du, elkarrizketaz, eztabaidaz eta 'performance'ez bete. Ezaguna da eztabaida zabalago batzuen mesedetan espezializazioen mugak gaindiarazten dizkielako bere gonbidatuei. Komisario ibili da berrehunetik gora programatan gaurkotasan handiko gaien inguruan, eta pertsonaia ezagun asko elkarrizketatu ditu, besteak beste, Margaret Atwood, Isabel Allende, Bill Clinton, John Hope Franklin, Salman Rushdie, Umberto Eco, David Byrne, Javier Marías, Norman Mailer eta Jay-Z. 1988an, Institute for Art and Cultures sortu zuen Los Angeleseko County Museum of Art-en barruan. 2003an, Chevalier des Arts et des Lettres saria eta, 2010ean, Austriako Zientzia eta Artearen Ohorezko Gurutzea jaso zituen./



IGNACIO VIDAL-FOLCH

Bartzelonan jaioa 1956an. Idazlea da eta kazetari lanetan dihardu 'El País' egunkarian. 'Amigos que no he vuelto a ver' ipuin liburuen egilea da, eta baita 'No se lo digas a nadie', 'La libertad' eta 'La cabeza de plástico' eleberriena ere. Bere obreri esker leku bat lortu du bere belaunaldiko idazlerik esanguratsuenetakoen artean. 'Turistas del ideal' trilogia bateko lehenengo liburua da; ondoren, 'Contramundo' etorri da. Hirugarrenaren zain egonik, argitaratu den bere azken liburua 'Noche sobre noche' kontakizunen hautaketa da. 'Barcelona: Museo secreto' literatur gida bereziak ondo jasotzen du idazle honek duen behaketarako gaitasun handia eta zorroztasun intelektual finaren kronista izaera. 80. urteen amaieran Pragan ibili zen berriemle eta ekialdeko Europako herrialde guztien demokraziarako trantsizioaren berri eman zuen. 2010. urteaz geroztik TVEko 'Nostromo' literatur programa aurkezten du./



IÑAKI ESTEBAN

'El efecto Guggenheim. Del espacio basura al ornamento' eta Miguel de Unamuno Saiakera Sariaren irabazle izan zen 'Libertad y sentido en las sociedades democráticas' liburuen egilea da. Egilekide da nazioartean izen handiko filosofoekin batera 'Diccionario de la existencia' eta 'Bilbao de cine' liburuen. El Correo-Euskal Herriko Unibertsitateko Kazetaritza masterreko irakaslea da, 'El Correo' egunkarian kazetari lanetan dabil eta hainbat kultur argitalpenetan parte hartzen du, baita liburuari buruzko irratirako programetan ere. 2002an, Kataluniako Argitaratzaileen Elkarteak Atlantida saria eman zion urteko artikulu-egilerik onena izateagatik. Espainiako Salman Rushdiearen aldeko Laguntza Komiteko koordinatzailea izan zen./

# hó \ gutunzuria

Gonbidatutako literatura... Errusia

Alhóndiga Bilbao



»MUSIKA ERRUSIARRAREN OMENEZKO KONTZERTU BEREZIA **GUTUN ZURIA**ren baitan, Bilboko Udalaren Musika Bandak musika errusiarraren eta musika molde horretan inspiraturiko jatorri antzeko musika egileen errepertorio atsegina eskainiko du apirilaren 2an, 19:00an Urküzuren zuzendaritzapean.

ERREPERTORIOA  
Herrickoia, 'Kalinka'  
Pyotr I. Tchaikovsky, 'Martxa eslabiarra, Op. 31'  
Pablo Sorozabal, 'Katiuska. Emakume errusiarra'  
Ippolitov Ivanov, 'Kaukasoko bozetoak'  
Terry Kenny, 'Suite on russian dances'  
Roland Kern, 'Pops in the Spots'  
Apirilaren 2an, larunbata, 12:30ean, Kulturen Atarian

»TATIANA FIRSOVAren 'URA IRAKITEN' filmaren emanaldia. (100') Jatorrizko bertsoa errusieraz, ingelesez azpizdatia. Galina emakume helduaren eta Ljusik mutil gaztearen arteko amodiozko istorioa kontatzen du. Noraino irits daiteke zuhurtziarik gabeko zorientasunaren bilaketa? Galinak senarra eta seme-alabak abandonatuko ditu eta espetxean bukatuko du. Apirilaren 5ean, Golem zine aretoetan, Alhóndigan

»LEKUA' dokumentalaren emanaldia, ARKADY KOGANEK zuzendua, SVETLANA VASILENKOren gidoiarekin. (26') Jatorrizko bertsoa errusieraz, ingelesez azpizdatia. Kapustin Yar base militarren bizi den gazte baten begiradaren bitartez, Svetlana Vasilenko jaio zen hiri erdi-sekretuan nola bizi diren ikusiko dugu. Apirilaren 7an, osteguna. Bastida aretoa, -2. solairua

»GALINA YEVTUSHENKOren 'APEADEROA' dokumentalaren emanaldia LEV TOLSTÓIri buruz. (52') Jatorrizko bertsoa errusieraz, gaztelaniaz azpizdatia. Lev Tolstóiren azken egunen historia kontatzen du. Nora zihoran familiaren etxea utzi eta Astapovo herrixkako tren geltokian heriotzak harrapatu zuenean? xdo decididó aban Apirilaren 9an, larunbata. Bastida aretoa, -2. solairua

»'Gonbidatutako literatura... Errusia' egitasmoa Errusiako Idazleen Batasunarekin eta Russian PEN Center-ekin lankidetzan eta Studio Harmonyren sustapenarekin antolatuta da. Studio Harmony errusiar telebistako 'Andereñoen institutua' serie ospetsuaren ekoizlea da, eta baita Festival honen barruan programatu den 'Ura irakiten' film ezagunarena ere.

ESKER ONAK  
Eskerrak eman nahi dizkiegu programa osatzen esku zabaltasunez lagundu duten erakunde eta pertsona guztiei: Errusiar Federazioko Kultura Ministerioa; Oleg Vavilov - Rossica Akademia; George Bregman eta Maria Koledina - United Nations Foundation Nizhny Novgorod-en; Svetlana Vasilenko eta Vladislav Otroshenko - ERRUSIAKO IDAZLEEN BATASUNA; Vera Moiseeva - RUSSIAN PEN CENTER; Yuri Belenki - STUDIO HARMONY; International MBA eta Intersolar./

## LANKIDETZAREKIN...



RODRIGO FERNÁNDEZ

1949an jaioa, Moskuko Ser irrati kateko berriemaketa da eta baita 'El País'-eko kolaboratzailea ere. Azken honen berriemaketa lanetan ibili zen errusiar hiriburuan hogeitaz urtez. Filologian magistera (1974), 'Súpnik' aldizkari sobietarraren Erredakzio Batzordeko kide izan zen; autore errusiarren (besteak

beste, Víktor Astáfiev, Fazil Iskander, Mikhail Shatrov, Yuri Trifonov) obra asko -eleberririk, ipuinak, antzerki-lanak- itzuli ditu. 'Diccionario Escolar Ruso-Español'-eko egilekide da (Mosku, 1987) eta 'Xakearen Entziklopedia'-ren autoreetako bat (errusieraz, Mosku, 1990)./


BELARRIA OSO ORGANO SENTIKORRA DA. ENTZUTEN DUZUNAK, ZURE BIZITZA ALDA DEZAKE. EZ DAGO BESTEAREN GOGOEA LAZTANTZEA BAINO GAUZA EROTIKOAGORIK

Errusia eta Espainiako Trukaketa Urtea 2011 egitasmoaren baitan antolatuta da parte hartze hau. Bi herrietako gobernuak jarri dute abian eta erakusketa, musika eta antzerki jarduerak eta beste proiektu batzuen bidez bi kulturen arteko hurbilpena lantzen ari da./

**GUTUN ZURIAK** aurtien gure inguruan ezezagun handi baten alde egin du apostua: errusiar literatura garaikidea, ekoizpen izugarria duena aniztasunari eta kalitateari dagokienaz, baina oso gutxitan itzulia izan dena gure herrian.

Literatur fikzioari begiratu batez ere, Jaialdiak literatur joera berriak markatzen hasi diren idazle berriak aurkeztu nahi ditu, nazioartean proiektio handia duten izenekin batera. Belaunaldi ezberdinetako autoreen parte hartzearekin letra errusiarraren munduan batera bizi diren aniztasun erak irudikatuko ditugu; absurdoaren eta umorearen oinordetza; oroimen historikoa berreskuratzea; belaunaldi berriek sobietar oinordetza ikhes egiteko duten beharra; antiutopian ugaltzea; eleberririk beltza eta gisako generoen eklosioa; dokumentu-prosaren tradizioaren emakume idazleen nagusitasuna; gaur egungo gerra gatazken kontakizun literarioa eta abar. Idazleek hainbat gai jorratuko dituen eztabaidan parte hartuko dute, besteak beste, Errusiako politikaren egoera, kazetaritzaren egoera eta intelektualeen pisu soziala, era horretan herria bizitzeko ari den benetako aldatetara hurbildu ahal izateko.

»Zer interesatzen da, zer kezka dute beste herrialde batzuetan gaur egun? Jaialdiko edizio bakoitzean leku jakin bateko literatura eta kultura irisgarri egin nahi ditugu interesa duen publikoarentzat, haren testuinguru historiko eta soziala ezagutu, elkar ulertzea sustatu eta harremanak eta ideien elkartrukea inspiratu autore eta bitartekarien artean. Hizkuntza, kultura, literatur formazio, erreferentzia eta tradizio ezberdinak. Adituek eta itzultzaileek autore eta entzuleen arteko elkarriketa egingarri bilakatu eta sustatuko dute. Gainera, munduko literatureko hurbilpenaren konplexutasunari buruzko eztabaidan ekarpenak egiteko asmoa dugu: Zer gaitzen dugu literatura itzultzen denean hizkuntza batetik bestera? Nola eragiten dute literaturetan globalizazioa deiturakoaren indarrek? Zer literaturek menderatzen dituzte merkatuak? Nola ezartzen dira gaur egun nazioarteko kanonak? Nola lotzen da literatura aldaketa politiko eta sozialekin?



VLADÍMIR MAKANIN

Ikasketaz matematikaria, ingeniaria eta zinemagilea da, eta xakeari amorratua; espazio-ontzi militarren institutu batean ari zen lanean, harik eta zinemaz eta gero literaturaz zaletu zen arte. Errusiako prosa garaikideko maisu handienetakoa da nazioarteko kritikaren arabera. 1937an jaio zen Orsk-en, Uraletan, Europa eta Asiaren arteko mugan. 1967an argitaratu zuen bere lehen eleberria, 'Marra gorria' izenekoa, eta harik sortu zen izen bereko filma. Zentsuraren ondorioz, bere herriko kultura-bizitzatik at egon zen, harik eta perestroikarekin batera idazlearen errealeismo psikologikoarekiko interesa berpiztu zen arte. 2008an, Txebeniako gerrari buruzko 'Asan' eleberririk Bloshtaya Kniga saria irabazi zuen. Lan batzuk gaztelaniara ere itzuli dira: 'El profeta', 'Un río de rápida corriente', 'Solo y solo' eta 'El pasadizo'. Aurtien beste eleberririk bat argitaratuko diote: 'Kaukasoko presoa' (1998)./



BORIS YEVSÉYEV

Jersonen jaio zen, Ukrainian; aita emusiarra eta ama espezialista da. Moskun jaio zen 1963an. Moskuko Estatu Unibertsitateko Filologia Fakultatean lizentziatu zen 1985ean, eta 2003an Filologiako doktore bihurtu zen. Ingelesez eta gaztelaniaz ere hitz egiten du. Haren lehen prosa-lana 'Zomorrok' ipuina izan zen, 'Oktiabr' aldizkarian. Lehen eleberria, 'Ostózhenska kaleko etxea', 1990ean argitaratu zuen, baina ospea 'Txotxoloa' (1995) eta 'Jaiotza' eleberrien eskutik heldu zitzaion. Literaturaren teoriari buruzko saiakerak eta artikuluak asko idatzi ditu. Bere lana Errusiatik at modu zabalean itzulia izan da. Sari asko irabazi ditu eta 2007an, Alexéi Tolstói buruz egindako biografia zela eta, Bolshaya Kniga Sarian bigarren lekua hartu zuen./



ALEXÉI VARLÁMOV

Prosagilea eta Errusiako XX. mendeko literaturaren espezialista da. Moskun jaio zen 1963an. Moskuko Estatu Unibertsitateko Filologia Fakultatean lizentziatu zen 1985ean, eta 2003an Filologiako doktore bihurtu zen. Ingelesez eta gaztelaniaz ere hitz egiten du. Haren lehen prosa-lana 'Zomorrok' ipuina izan zen, 'Oktiabr' aldizkarian. Lehen eleberria, 'Ostózhenska kaleko etxea', 1990ean argitaratu zuen, baina ospea 'Txotxoloa' (1995) eta 'Jaiotza' eleberrien eskutik heldu zitzaion. Literaturaren teoriari buruzko saiakerak eta artikuluak asko idatzi ditu. Bere lana Errusiatik at modu zabalean itzulia izan da. Sari asko irabazi ditu eta 2007an, Alexéi Tolstói buruz egindako biografia zela eta, Bolshaya Kniga Sarian bigarren lekua hartu zuen./



VLADISLAV OTROSHENKO

1959an jaio zen, Novocherkassken, Errusiako iparraldean. Prosagilea da eta, besteak beste, 'Persona fidagailua', 'Artelaren historia sekretua', 'Gida nazazu, itsu horrek', 'Argazki-album batentzako eranskina', 'Ingeniarien hiriarren auzia' eta 'Grisha birraitonaren patioa' idatzi ditu. Haren lanak itzuli eta argitaratu egin dituzte Austriar, Alemaniako, Hungariar, Italiar, Txinatar, Lituaniar, Serbiar, Eslovakiar, AEBn, Frantziar eta Estoniar. 2004an Grinzane Cavour literatura-saria, Italiako saririk garrantzitsuenetako bat, jaso zuen. Errusian ere hainbat sari jaso ditu: Yásnaia Poliana Saria 2003an, errusiarrez idatzitako ipuin onenarentzako Ivan Petrovich Belkin Saria eta Gorki Saria 2006an, besteak beste./



SVETLANA VASILENKO

1956an jaio zen Kapustin Yar-en, Astrajan probintzian. Hiri horren ondoan dago misil nuklearrak garatu eta jauritzeko basea, 1946an Stalinen aginduz eraikia. Hain zuzen, leku horretan jaioa izan da historiari gehienak 'Ehiztarien historia' eleberrien bidez bihurtu zen ezaguna. Geroago idatzitako eleberririk hainbat hizkuntzataraz itzuli dituzten arren, nazioarteko arakastarik handiena 'Shamara eta beste historia batzuk' ingelesez argitaratu zenean izan zen. Liburu hori zinemara egokitu eta Ves Montand Saria eskuratu zuen. Katalariar, poeta eta gidolaria da, eta Amazona Berriak deritzen emakume idazleen taldea sortu zuen beste batzuekin batera. 1999an, Nabokov saria jaso zuen. 1996tik, Errusiar idazleen Batasunaren zuzendaritzako lehen idazkaria da. 'Novy Mir' aldizkariaren saria jaso zuen 1998an 'Durocka' ['Tuntuna'] eleberrigatik, eta Babokov saria 1999an./



LEV DANILKIN

Ukrainian jaio zen 1974an, ikasketaz filologoa da eta bere belaunaldi literatura-kritikari garrantzitsuenak. Ospetsua da kritika ulergarria egiteagatik, baina baita liburu baten arakasta edo porrota bermatzeko gaitasunagatik ere. 2001etik Afisha aldizkari ospetsuan ari da zutabegile, eta koodinazio-lanak ere egiten ditu bertan, liburuen sailaren eta literatura-blogaren. Horrez gain, Julian Barnesen 'Londreseko gutunak' itzuli ditu errusierara, eta Aleksandr Prokhanov idazle eta politikariaren biografia literarioa idatzi du: 'Arrautza zuen gizona: Aleksandr Prokhanov idazle eta politikariaren biografia literarioa'. Baita Yuri Gagarinen biografia ere. 2008an, finalista izan zen Bolshaya Kniga, Bestseller Nacional eta Bunin sarietan 2010ean, literatura-kritikaren Belkin saria jaso zuen. Bolshaya Kniga sariko adituen batzordeko kidea da./



ROMÁN SENCHIN

1971n jaio zen Kizilen, Siberian. Gero Minusinskera joan zen, Siberian bertan, eta hanbe bizi izan zen duela gutxi Moskura joan zen arte. Hainbat sari jaso ditu honezkeroko eta etorkizun handieneko idazle gazteetako bat da, era berean rock musikari eta abeslaria da. Haren lanak frantsesera eta alemanera itzuli dituzte. Lanik ezagunena 'Minusinsk' eleberririk autobiografikoa da. Bertan, hizkuntza aberatsa erabiliz, ez asmorik ez idealik duten probintzietako gazte-talde bat deskribatu du: ilusiorik gabe ia, kontsolamendu bakarra edarietan eta drogetan aurkitu dute. Senchinen esanetan, Errusiako probintzietako gazte gehienek irudia dira pertsonaia horiek. Azken eleberria, 'Los Yeltishev', Errusiako Booker sarietan finalista izan zen 2009an eta Bestseller Nazionala 2010ean./



MARIA GÁLINA

Tverren jaio zen 1958an. Poetigilea da, itzultzailea, literatura-kritikaria eta hainbat eleberririk ipuinen egilea. Ukrainian jaio zen. Itas Biologian graduatu zen Odesako Unibertsitatean eta 1987az geroztik Moskun bizi da. 90eko hamarkadan egin zen ospetsu poetigile gisa eta, hurrezkerako, hainbat sari eskuratu ditu, besteak beste Novy Mir Saria eta Portal Prize nazioartekoa, 'Guivi eta Shenderovich' bere eleberririk garrantzitsuenarengatik (ingelesez itzulia dago 'ramifications' izenburuarekin, eta Academia Rossica saria jaso du, errusieratik egindako itzulpen onenarentzat). Haren literatura-munduak errealeismo magiko kutsu handia dauka. Zientzia fikzioa hamar eleberririk baino gehiago argitaratu ditu, eta lan guzietan genero horretako gaietako arreta handia egiten du. Haren olerkiak ingelesez eta ukrainierara itzuli dituzte, eta prosa, berri, ingelesez eta polonieraz./



GALINA YEVTUSHENKO

Voronezh-en jaio zen 1956an. Hirian bertan Estatu Unibertsitatean Filologiako Fakultatean lizentziatu eta, ondoren, Zinematografiako Errusiako Estatu Unibertsitatean egin zituen doktorego ikasketak. Gaur egun ROZA zinema-estudioetan lan egiten du: dokumental eta fikziozko zinemako gidolaria, zuzendaria eta ekoizlea da. Nika eta Zolotoi Oriol sari nazional ospetsuetarako izendatu dute eta Errusiako Federazioko ohorezko arte-saria eta Moskuko Udaleko Literatura eta Arte Saria irabazi zituen 2007an. 'Polutínok' ['Geralekuak'] filmak Federazioko Kontseiluaren Saria irabazi zuen, Tolstói buruzko film hoberenarentzat. Gainera, beste film nabarmen batzuk dira 'Cherdáchnaya istoria' ['Teiatupe baten historia'] eta 'Nóvie vreméná ili Birzha nedvázhimosti' ['Garai berriak]./

## Laster... Errusia gehiago

**GUTUN ZURIA**ren ondoren, maiatzaren 11a eta ekainaren 29a bitartean, Dmitri Baltermants argazkilararen erakusketaren bidez, AlhóndigaBilbao kultura errusiarraren unibertsitatean barneratzen jarraituko du. Haren argazkiek Sobiet Batasuneko historiaren kontaketa aparte osatzen dute.

# hó \ gutunzuria

Beste atal batzuk...

Alhóndiga Bilbao

## 'STORYTELLING', » ETORRI ETA KONTATU ZURE ISTORIA

»Ahalik eta herritar gehieni parte hartzeko aukera eman nahian, aurtengo **GUTUN ZURIAK** honako proposamena dakarkizue: apirilaren 10ean, igandea, eguerdiko 12:00etan, 'STORYTELLING' deritzon jardura. **'ERREALITATEAK FIKZIOA GAINDITZEN DUENEAN'** izango du goiburua, eta nahi duten guztiei gonbidapena egingo zaie AlhóndigaBilbaoko atarian bildu eta gehienez 5 minutuko kontakizuna egin dezaten. Benetan bizi izandako istorioak izango dira, istorio harrigarriak, hain sinestezinak ezen asmatuak direla emango baitu.

12.00etik 14.00era, bi orduetan, hainbat kontalari agertuko dira beren istorioa kontatzera; batzuk profesionalak, baina gehienak esperientzia gabeak; batzuk ezagunak –hiriko pertsona famatu batzuek ere hartuko dute parte eta bat-bateko kontalari izango dira– eta beste asko abentura honetan besterik gabe apuntatu nahi dutenak. Horretarako, AlhóndigaBilbaoko Infopuntura joan behar duzu eta bertan izena eman. Izena ematen duzunean, kontakizuna euskaraz edo gaztelaniaz egingo duzun zehaztu behar duzu, eta oholtzara igotzeko ordua emango dizugu, bertatik HITZ EGIN dezazun! /



ELKARRIZKETAK  
IRAKURKETAK  
KONTZERTUAK  
ETA BESTELAKO  
PROPOSAMENAK  
IDEIA ETA  
FORMATU  
BERRIAK  
AURKITZEKO LEKUA



## IRAKURLEAREN ORDU



»**GUTUN ZURIAK 'IRAKURLEAREN ORDU'** izeneko atala jarri du martxan. Gune horretan irakurleek idazleekin egoteko aukera izango dute, haiekin gertutik eta lasai hitz egiteko.

Salman Rushdie-ren hitzaldi ostean izan ezik, egunero, arratsaldeko azken hitzaldia amaitu eta gero, idazle gonbidatuekin ardo bana edateko aukera izango dugu, haiekin mintzatu eta beti egin nahi izan diegun galdera hori egiteko... Azken batean, gertuagotik ezagutzeko. /

\* Hitzaldira joan direnak bakarrik sartu ahalgo dira.

GASTRONOMIA PUNTUA

## ERRUSIAKO MOKADUAK

» LA FLORINDAK, janaria kultura arteko fusio gisa ulertzen duen AlhóndigaBilbao-ko jatetxeak, Jaialdiak dirauen artean errusiar jaki desberdinez osaturiko proposamena egingo digu; horren bidez, bidaiaria literario-gastronomiko bati ekingo diogu, Moskun hasi eta Siberiako estepa zurietaraino. /



## OBRA GONBIDATUAK

»**GUTUN ZURIAK** irauten duen bitartean, Mediatekako lehen solairuan, Jaialdian parte hartzen duten idazle guztien liburu hautatuak aurkitu dituzu.

Liburu-funts handia dago Mediatekan, garai guztietako artista errusiarren literatura eta musikaz hornitua. /

MEDIATEKA

## BERLANGA ETA LEV TOLSTÓIREN... OMENEZ »

»Epigrafe horren bidez, **GUTUN ZURIAK** literaturaren munduko egile, editore eta protagonisten eragina eta gaurkotasuna azpimarratu nahi du, bai garaikideena, bai iraganekoena. Jaialdi honek omenaldia egin nahi die,aldi berean, desagertu berri zaigun José Luis García Berlangari ('**EL VERDUGO**' pelikularen emanaldiarekin) eta Lev Tolstói idazle errusiarri, azken hori hil zela ehun urte bete baitira. Omenaldi horren baitan '**EL APEADERO**' dokumentala emango da.

Berlangari buruzko omenaldia osatzeko, erakusketa bat jarri da La Sonrisa Vertical sariko portadaz, argazki eta sari horretako protagonistei eta historiari buruzko material dokumentalez osatua; izan ere, Berlanga sari horren epaimahaiko kide izan zen hasiera-hasieratik, hots, espainiarazko narratiba erotiko garaikideak hainbat urletan izan zuen sari ospetsuenaren epaimahaiburua. Erakusketa hori apirilaren Tetik 15era bitartean ikusi ahalgo da Auditoriumeko atarian. /



(1994) La Sonrisa Vertical XVI Sariko epaimahaia, epaia emateko unean. Ezkerretik eskuinera, Beatriz de Moura, Juan Marsé, Terenci Moix, José Luis G. Berlanga, Almudena Grandes, Rafaela Conte eta Ricardo Muñoz Suay.

## LIBURU-SINATZEA »



»Aurreko edizioetan bezala, **GUTUN ZURIA** jaialdian, idazle gonbidatuek liburuak sinatuko dituzte.

Apirilaren 7an, SALMAN RUSHDIE eta SLAVOJ ŽIŽEK-ek beren liburuak sinatuko dituzte, 'Solosaldia' saioaren ostean. Hilaren 8an, CATHERINE MILLET eta ANTONIO ALTARRIBAREN txanda izango da eta, hilaren 9an, SOLEDAD PUÉRTOLASena, betiere hitzaldia amaitu eta gero. Igandean JAVIER CERCAS izango da, eguerdiko 13.00etan, Kulturen Atarian. /

BESTE ATAL BATZUK...

## GUTUN ZURIA, HIRIAN...



»Jaialdiaren asmoa da, parte hartzen duten egileen ahotsa zabaldu eta herritarrekin komunikatzea, metroz bidaiatzean, erosketak egiterakoan, ohiko liburu-dendan libururen bat ikuskatzean. /

## GUTUN ZURIAREN ERAKUSKETA METROBILBAO-N

» Martxoaren 28tik apirilaren 10era bitartean, parte hartzaileen ideia probokatzailerak eta literatur erretratuak egongo dira ikusgai Abando, Santutxu eta Portugaleteko geltokietan. **GUTUN ZURIA** unibertsoan murgiltzeko modu ezin hobea, MetroBilbao-ren lankidetzarekin. /

## KOMERTZIOAK ERRUSIAZ 'JANTZITA'

»BilbaoCentro-k, Bilboko Merkatarien Elkarteak, **GUTUN ZURIAN** parte hartzeko gonbita egiten die 450 saltoki bazkideei; horretarako, Errusiako produktuz jantzi behar dituzte erakuslehoak. Gainera, Bilbo erdiguneko saltokiak informazio-puntu bilakatuko dira. Jaialdiko kartel ofiziala jartzeaz gain, egitarauaren eduki guztiak jasotzen dituen aldizkari aleak izango dituzte bezeroen eskura. /




## LIBURU-DENDA KOLABORATZAILEAK

»Aurten ere Bilboko liburu-dendek Jaialdiarekin bat egin eta idazle gonbidatuen liburu hautatuak aurkeztu eta gomendatuko dituzte. Horrez gain, liburu-denda kolaboratzaileetan **GUTUN ZURIA BONO** erosi ahalgo duzu, Jaialdiko hitzaldi guztietara txartel bakararekin sartu ahal izateko. /

|                        |                                       |
|------------------------|---------------------------------------|
| Anti Liburudenda       | Maiatzaren 2ko kalea, 2               |
| Binario libros         | Iparagirre, 9 bis                     |
| Casa del Libro         | Urkixo zuzarkalea, 9                  |
| Casa del Libro         | Colón de Larreategi, 41               |
| Elkar Megadenda        | Iparagirre, 26                        |
| Elkar Megadenda        | Zamudioko Alea, z/g                   |
| Elkar Megadenda        | Poza kalea, 14                        |
| Ibaizabal              | Colón de Larreategi, 21               |
| La Librería de Deusto  | Done Petri Plaza, 4                   |
| Librería Cámara        | Euskalduna, 6                         |
| Librería Etxean        | Agirre Lehendakariaren Etorbidea, 135 |
| Librería Jakinbide     | Ledesma, 6                            |
| Librería Tintas        | Santimami zuzarkalea, 40              |
| Santos Ochoa Bilbao    | Simón Bolívar, 19 - lonja             |
| Topbooks               | Kale Nagusia, 22                      |
| Librería Intercultural | www.libreriaintercultural.com         |
| Shôpa                  | AlhóndigaBilbao                       |

Babeslea

Laguntzailea



**GUTUN ZURIA**  
Jaialdiaren alde aurreko jarduerak

» **APIRILAREN 2AN, LARUNBATA 12:30EAN** Alhóndiga Bilbaoko Kulturen Atarian, **GUTUN ZURIAK** 'Gonbidatutako literatura... Errusia' bere egitasmoaren 'gose-pizgarri' bat eskaintzen du. Bilboko Udalaren Musika Bandak Errusiako musikaz eta bere eragina izan duten beste obra batzuez osatutako kontzertua eskainiko du. Besteak beste, Pyotr I. Tchaikovsky, Pablo Sorozabal, Ippolitov Ivanov, Terry Kenny eta Roland Kernen-en lanak entzungo dira. Sarrera doan.

» **APIRILAREN 5EAN, ASTEARTEA**, Golem Alhóndiga zineetan Tatiana Firsovaren 'Ura irakiten' errusiar filma emango da, errusierazko jatorrizko bertsioan eta ingelesezko azpitituluekin. 20:00etan. 4 euro.

» **APIRILAREN 6AN**, arratsaldeko 19:30 etan, Bastida Aretoa (-2 solairuan) Milagros del Corral, Book Tomorrow Foro globalaren Komite zientifikoaren Presidentea, 'Liburuatik e-bookera' buruz. 2 euro

**APIRILAREN 7AN**  
/OSTEGUNA

» **12:00etan** 'Gonbidatutako literatura... Errusia' egitasmoa: 'Errusia literatur mito gisa' VLADISLAV OTROSHENKO eta SVETLANA VASILENKO elkarrizketan. Aurkezle eta moderatzaile BORIS YEVSÉYEV, RODRIGO FERNÁNDEZ en laguntzaz, 'El País' egunkariak Moskun duen berriemailea. »'Lekua' dokumentalaren emanaldia, ARKADY KOGAN-ek zuzendua eta SVETLANA VASILENKO-ren gidioarekin. (26') Errusierazko jatorrizko bertsioan eta ingelesezko azpitituluekin. Bastida Aretoa, -2 solairuan. 2 euro.

» **18:30ean** Solasean: 'Egoera ikaragarri txarra da, baina ez serioa' SLAVOJ ŽIŽEKekin topaketa. Aurkezlea: IÑAKI ESTEBAN. Auditoriuma, -1. solairuan.

» **20:00etan** Solasean: 'Mundua bat egiten den lekua' SALMAN RUSHDIE eta PAUL HOLDENGRÄBER elkarrizketan. Saioa amaitzeko, Ipar Afrikako eta Ekialde Hurbileko oraingo gertakizunei buruz SALMAN RUSHDIE, SLAVOJ ŽIŽEK eta PAUL HOLDENGRÄBERen arteko elkarrizketa izango da. Auditoriuma, -1. solairuan. 4 euro Slavoj Žižek eta Salman Rushdierekin izango diren bi topaketengatik.

**APIRILAREN 8AN**  
/OSTIRALA

» **12:00etan** Gonbidatutako literatura... Errusia' egitasmoa: 'Errusiar literaturaren ikuspegi berriak' LEV DANILKIN eta ROMÁN SENCHIN elkarrizketan. Parte hartzaile RODRIGO FERNÁNDEZ, 'El País' egunkariak Moskun duen berriemailea. Bastida Aretoa, -2. solairuan. 2 euro.

» **18:00etan** 'Gonbidatutako literatura... Errusia' egitasmoa: 'Antiutopiak' VLADISLAV OTROSHENKO eta MARIA GÁLINA elkarrizketan. Aurkezle eta moderatzaile LEV DANILKIN, RODRIGO FERNÁNDEZ en laguntzaz. Bastida Aretoa, -2. solairuan. 2 euro.

» **20:00etan** Solasean: 'Desioa, monogamia eta pornografia' CATHERINE MILLET eta ANTONIO ALTARRIBA elkarrizketan. Auditoriuma, -1. solairuan. 2 euro.

» **21:30ean** Irakurlearen ordua: Hitzaldiaren ondoren, CATHERINE MILLET eta ANTONIO ALTARRIBA idazleen topaketa beren irakurleekin.

» **00:00etan** LUIS GARCÍA BERLANGAren omenez. **Gautxorientzako zine emanaldia.** Garcia Berlangaren 'El Verdugo' filmaren emanaldia. Rafael Azcona, Ennio Flaiano eta José Luis García Berlangaren argumentua eta gidioa. Aurkezlea: JORGE GUERRICAECHEVARRIA. Bertan izango da ANA DE ESTEVAN ere, La Sonrisa Verticaleko editorea. Golem Alhondiga zinemak. 4 euro.

**APIRILAREN 9AN**  
/LARUNBATA

» **12:00etan** 'Gonbidatutako literatura... Errusia' egitasmoa: 'Idazlearen eginkizuna Errusiako hondar politikoan' GALINA YEVTUSHENKO zinegilea eta VLADISLAV OTROSHENKO elkarrizketan. GALINA YEVTUSHENKOren 'Apeaderoa' dokumentalaren emanaldia, Lev Tolstóiri buruz. (52') Errusierazko jatorrizko bertsioan eta gaztelaniazko azpitituluekin. Bastida Aretoa, -2. solairuan. 2 euro.

» **18:00etan** 'Gonbidatutako literatura... Errusia' egitasmoa: 'Talde memoria' Aurkezle eta moderatzaile LEV DANILKIN, RODRIGO FERNÁNDEZ en laguntzaz, 'El País' egunkariak Moskun duen berriemailea. VLADIMIR MAKANIN eta ALEXÉI VARLÁMOV elkarrizketan. Bastida Aretoa, -2. solairuan. 2 euro.

» **20:00etan** Solasean: 'Pertsonaiak: Nondik datoz?, Nork agintzen die?, Obeditzen al dute?' SOLEDAD PUÉRTOLAS eta KARMELE JAIO elkarrizketan. Auditoriuma, -1. solairuan. 2 euro.

» **21:30ean** Irakurlearen ordua: Hitzaldiaren ondoren SOLEDAD PUÉRTOLAS eta KARMELE JAIO idazleen topaketa beren irakurleekin.

» **22:00etan** Kontzertua Rafael Lechowski & Glaç Jazz Band Kulturen Ataria, sarrera doan

**APIRILAREN 10EAN**  
/IGANDEA

» **12:00 – 14:00** 'Storytelling' saioa. Bost minutuan behin istorio bat zuzenean. Kontakizun guztiek benetakoak izan behar dute eta lelo honi erantzungo diote: 'Errealitateak fikzioa gainditzten duenean'.

» **13:00 – 14:00** Liburu sinaketa: JAVIER CERCAS. Kulturen Ataria.

» **18:30ean** Solasean: 'Irakurketa erabakigarriak' JAVIER CERCAS eta IGNACIO VIDAL-FOLCH elkarrizketan. Auditoriuma, -1. solairuan. 2 euro.

» **20:00etan** Irakurlearen ordua: Hitzaldiaren ondoren JAVIER CERCASen topaketa beren irakurleekin.

**SARRERAK SALGAI**  
**MARTXOAREN 9TIK**  
**AURRERA**

Bakarkako sarrerak:  
Infopuntua eta Ticketbox

**GUTUN ZURIA** bonoak: 'Solasean' saileko bost hitzaldietarako sarbidea. Salneurria: 10 euro / 8 euro Hó txartelarekin. Infopuntuan eta honako liburu-dendetan salgai: Anti Liburudenda, Binario Libros, Casa del Libro, Elkar Megadenda, Ibaizabal, La Librería de Deusto, Cámara, Etxean, Jakinbide, Tintas, Santos Ochoa Bilbao, Topbooks, Intercultural eta Shópa.

» **Antolatzailea:** Alhóndiga Bilbao  
**Aholkulariak:** Rosa Ferré, Iñaki Esteban eta Paul Holdengräber